

Ebazpena: R054/2023

Espedientea: 5/2018

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 8an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea zeinek duen eskumena ITSL zergapekoak lurralde erkidean bakarrik jardundako langile batzuei 2012 eta 2014 bitartean egindako lan pertsonalaren ondoriozko atxikipenak ordainarazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 5/2018 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

- 1.-** Egoitza fiskala Gipuzkoan du ITSLk, eta 2012tik 2014ra bitarteko lan pertsonalaren ondoriozko atxikipenak GFari bakarrik sartu dizkio.
- 2.-** 2016ko martxoaren 7an, ikuskapen-prozedura bat hasi zen, zerbitzuak soilik lurralde erkidean eta/edo atzerrian eman zituzten langileei zegozkien atxikipenak ordainarazteko eskumenari dagokionez.

3.- 2016ko urriaren 11n, jarduketa burutu zen eskumenik ez zuen Administrazioan sartu izanaren txosten bat eginez; txosten horren bidez, zenbait langileren atxikipenak erreklamatzeko ziren, egiaztatuta geratu baitzen langile horiek ez zituztela beren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan egin.

4.- 2016ko azaroaren 11n, aurreko txostenean zerrendatutako langileei zegozkien funtsen bidalketa eskatu zion ZAEAk GFARI.

5.- 2017ko irailaren 18an, 2012ko lehen hiru hiruhilekoei zegozkien diru-bidalketak ezetsi egiten zituela jakinarazi zuen GFAk, preskripzioagatik, bai eta JITY jaun langileari zegozkionak ere, hark zerbitzuak atzerrian eman zituelako.

6.- 2017ko azaroaren 16an, ZAEAk inhibititu zedila eskatu zion GFARI, eta hark bere eskumena berretsi egin zuen 2017ko abenduaren 15ean.

7.- 2018ko urtarrilaren 15ean, ZAEAk eskumen-gatazka planteatu zuen; 5/2018 espediente-zenbakia esleitu zitzaion, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

Bat. Arbitraje Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera (besteak beste, 2015eko abenduaren 15eko epaia (ECLI:ES:TS:2015:5337), 2022ko otsailaren 10ekoa (ECLI:ES:TS:2022:596), 2020ko abenduaren 3koa (ECLI:ES:TS:2020:4077), 2021eko urtarrilaren 28koa (ECLI:ES:TS:2021:372), 2020ko maiatzaren 18koa (ECLI:ES:TS:2020:1010)), administrazio arteko kreditu publikoaren eskubidearen preskripzioa deklaratu behar da 2016ko azaroaren 11 baino lau urte lehenago GFari sartutako atxikipenei dagokienez.

Atzerrian zerbitzuak eman dituzten enplegatuei dagozkien lan-atxikipen pertsonalen kasuan, Arbitraje Batzordeak bere 6/2018 Ebazpenean adierazi zuen indarrean dagoen Ekonomia Itunaren jatorrizko idazketan, *ratione temporis* kasuan aplika daitekeena izanik, arau-hutsune bat zegoela lurralde-itsasoan eta/edo atzerrian lan egiten duten langileen ordainarazpen-eskumenari dagokionez, eta berau integratu egin behar zela, ezin delarik Estatuaren titulartasuna ontzat eman beren-beregi ez dagoelako EAEren alde hitzartuta.

Horrela, Arbitraje Batzordeak Auzitegi Gorenaren 1998ko azaroaren 14ko Epaiak (ECLI:ES:TS:1998:6730) ezarritako bideari jarraitu zion. Epai horretan Itunaren interpretazio integratzailea egitea erabaki zen, arau-hutsune bat zegoela iritzita, eta inplizituki onartu zuen nazioarteko uretan nabigatzen duen ontzi bateko tripulatzaileek lortutako etekinak, kontzeptualki, EAEn lortuzat jo zitezkeela *lantokia* bertan egonez gero.

Jurisprudenzia-ildo hori bera berretsi zuen Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 4ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2019:3144), Arbitraje Batzordearen 6/2018 Ebazpena berresten baitu, honako hau adieraziz: *Arbitraje Batzordeak errekurritutako ebazpenean emandako argudio guztietatik, bat bereziki sinesgarria da: zaila da Estatuaren abokatuaren tesiari eustea (horren arabera, jurisdikziopeko itsasoa eta nazioarteko urak ezin dira inoiz EAEko lurraldea izan) 2017ko legegileak berak gaia arautu duela kontuan izanik, berariaz aurreikusten baitu horietan emandako zerbitzuak «lantokiari» egozteko aukera, hau da, kasu horietan, egoitza-portua kokatuta dagoen lekua, lurralde erkidea izan zein foru-lurraldea izan.*

Horrela, bada, baketsutzat jo daiteke, aipatutako azken epaiak dioen bezala: *eztabaidaezina da 2017ko erreformaren aurreko erregulazioak hutsune bat zuela, interpreteak edo zuzenbidearen aplikatzaileak nahitaez bete beharrekoa.*

Hutsune hori ebazte aldera, Auzitegi Gorenak hau dio: *esan daiteke —foru-aldundiek dioten bezala— 2017ko Legeak identifikatu dugun hutsunea bete duela, eta gaiari buruzko benetako interpretazio bat eskaini, etorkizunera begira proiektatzen dena; egia da interpretazio hori etorkizunerantz proiektatzen dela, baina interpretazio-parametroa ere izan daiteke aurreko aldiei dagokienez, eta horrek zalantzaren bat eragin dezake ebazpenari buruz.*

Horrela, Arbitraje Batzordeak 6/2018 Ebazpenean ezarri zuen irizpidea berresten da; izan ere, langilea atxikita dagoen *lantokira* jo zuen ordainarazpenaren eskumena arautzen duen araudia integratzeko interpretazio-irizpide egoki gisa, baina itsasontzi batean zerbitzuak ematen dituzten marinel eta arrantzaleen kasuan, irizpide hori itsasontziaren egoitza-portuari lotzen zaio.

Kasu honetan, langilea *atxikita* dagoen lantokia Gipuzkoan dago kokatuta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea 2012-14 aldian atzerrian lan egin zuen langileari dagozkion lan pertsonalaren ondoriozko atxikipenak GFari dagozkiola.

2.- Preskribatutzat jotzea Estatuaren administrazio arteko kreditu publikoa GFaren aurka 2012ko lehen hiru hiruhilekoetako atxikipenen bidalketei dagokienez.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ITSLri.